

**LEHENENGO PROIEKTUA, proiektu teknikoa baloratzeko irizpideak:**

A) ENTITATE ESKATZAILEAK KONTZILIAZIOAREKIN DUEN HARREMANA ETA KONPROMISOA, ETA PROIEKTUA HASTEKO ARRAZOIA (10 puntu gehienez).

A.1.- Entitateak edo pertsona autonomo kontratatzaileak kontziliazioaren arloan izandako ibilbidearen laburpena, arlo horren gaineko interesa, esperientzia eta ibilbidea adierazten dituen (1,5 puntu gehienez).

A.2.- Eskatzaileak proiektua aurrera eramateko duen jarrera eta motibazioa. Proiektua abian jartzeko arrazoi zehatzak. (1,5 puntu gehienez).

A.3.- Diagnostikoa eta plana egiteak eragin dezakeen barne- eta kanpo-inpaktuaren aurreikuspena, genero-inpaktuari arreta berezia eskainiz ikuspegi intersektionaletik. (4 puntu gehienez).

A.4.- Entitateak edo mikroenpresak proiektuarekiko konpromiso publikoa izatea. Eskatzaileak proiektua gauzatzeko asmoa daukala azaldu die plantillako langileei (3 puntu gehienez).

B) KONTZILIAZIOARI BURUZKO PRESTAKUNTZA DIAGNOSTIKOAREN FASEAN. DIAGNOSTIKOA EGITEN DUEN BITARTEAN, AHOLKULARITZA-ENTITATEAK PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOA EMANGO DU KONTZILIAZIO ARDURAKIDEARI ETA ZUZENDARITZARAKO ETA PLANTILLARAKO KONTZILIAZIO-NEURRIEI BURUZ (10 puntu gehienez).

B.1.- Aurreikusitako prestakuntza-planaren azalpena (helburuak, datak, hartzaileak) (2 puntu gehienez).

B.2. Prestakuntza horretan zuzendaritzari eta langileei helaraziko zaizkien kontziliazio-ardurakidearen arloko ideia nagusiak (2 puntu gehienez).

B.3.- Entitateari edo mikroenpresari prestakuntza eskainiko zaion moduaren azalpen arrazoitua: formatua (presentziala/online), metodologia (elkarriketak, world kafea, prestakuntza-tailerra, hitzaldia, bideoak), aurreikusitako saioen kopurua eta egingo diren prestakuntza-taldearen kopurua (2 puntu gehienez).

B.4.- Kontziliazio erantzukideari buruzko prestakuntzako saio presentzialak sartzea entitateko gerentziarentzat eta giza baliabideen arduradunentzat, gutxienez 2 ordukoak (2 puntu gehienez).

B.5.- Kontziliazio ardurakideari buruzko prestakuntza-saioak sartzea plantillarentzat, gutxienez 2 ordukoak (puntu 1 gehienez).

B.6.- Kontziliazio ardurakideari eta kontziliazio-neurriei buruzko aurkezpen bat egitea (ppt, bideoa edo antzekoa), langile guztiei bidaltzeko (puntu 1 gehienez).

C) PROPOSATUTAKO LANA ENTITATE ESKATZAILEAREN EZAUGARRI ETA BEHARRETARA EGOKITZEA (25 puntu gehienez).

C.1.- Proiektuaren laburpen orokorra. Honako hauek zehaztu behar dira: diagnostikoa eta kontziliazio-plana egiteko proiektua osatzen duten faseak, fase bakoitzeko mugarrak, haietako bakoitzean egin nahi diren lan-saioen kopurua eta mota, eta egikaritzeko denborak. Proiektuaren bi osagaiak (diagnostikoa eta plana) nola uztartzen diren zehaztu behar da. (5 puntu gehienez).

C.2.- Entitate kontratatzailearentzat proposatutako proiektu motaren azalpen arrazoitua. Lan-proposamena entitatearen ezaugarrietara (tamaina, sektorea, plantillaren profila, marra gorriak, zuzendaritzaren beharrak, lanpostu motak, ekoizpen-erritmoak, egungo erronkak, kontziliazioarekin lotutako zailtasunak, lan-giroa...) eta plantillara (profila, adinaren eta sexuaren arabera, esperientzia, lanpostu motak...) egokitzen delako justifikazioa (10 puntu gehienez).

C.3.- Proiektuaren dinamizazioa: talde eragilea. Proiektuaren motor izango den taldearen azalpena. Proiektuaren fase bakoitzean aurreikusitako osaera eta funtzioak. Zuzendaritzaren, ordezkaritza sindikalaren eta plantillaren presentzia barne hartzea baloratuko da, baita emakumeen eta gizonen presentzia orekatua ere. (5 puntu gehienez).

C.4.- Proiektuan ariko diren eragileen eta horretarako erabiliko diren formulen azalpena, proiektuaren fase bakoitzean (2,5 puntu gehienez).

C.5.- Proiektua entitatearen politketan integartzeko formulak (2,5 puntu gehienez).

D) DIAGNOSTIKOA (20 puntu gehienez).

D.1.- Diagnostikoarekin lortu beharreko helburuak (3 puntu gehienez).

D.2.- Diagnostikoan aztertuko diren esparruak/alderdiak. Agindu honen 4.4 oinarrian zehaztutako guztiak sartzeari balioetsiko da (5 puntu gehienez).

D.3.- Entitatearen diagnostikoa egiteko behar den informazioa lortzeko eta egiaztatzeko aurreikusitako metodologia. Entitateari eskatuko zaion informazioa eta hori antolatzeke erabiliko diren tresnak (4 puntu gehienez).

D.4.- Parte hartzeko dinamikak sartzeari diagnostikoan, plantillaren beharrei buruzko informazioa lortzeko (2 puntu gehienez).

D.5.- Plantillako kideek beren beharrak zein diren komunikatzeko parte har dezaten laguntzeko tresnak aplikatzeari (4 puntu gehienez).

- Kontziliazio-beharrei buruzko online-galdetegi bat emango zaie langile guztiei (puntu 1)
- Diagnostikoa egiten den bitartean, parte hartzeko gune irekiak eskainiko dira (puntu 1)
- Plantilla osoari irekitako talde-dinamikak antolatuko dira, informazio kualitatiboa biltzeko. Horietan, emakumeen eta gizonen parte-hartzea bermatuko da — betiere biak plantillan badaude —, eta haien ordezkaritza orekatua sustatuko da. (2 puntu). Talde-dinamikak lanpostu-mota desberdinetako ordezkarien kopuru jakin batera mugatzen badira, informazio kualitatiboa biltzeko, bi sexuen parte-hartzea bermatuz, atal honetan puntu 1 emango da.

D.6. Diagnostikoaren emaitzak plantillari jakinarazteko moduaren azalpena. (2 puntu gehienez)

E) KONTZILIAZIO-RAKO EKINTZA-PLANA EGITEA (20 puntu gehienez)

E.1.- Plana egiteko erabiliko den metodologia. Nola hautatu erronkak eta beharrak, nola ezarri helburuak, nola zehaztu eta lehenetsi haiek lortzeko ekintza-neurriak (5 puntu gehienez).

E.2.- Planean sartuko diren helburuak eta neurriak zehazteko, hautatzeko eta lehenesteko proposatutako irizpideak eta eragileak. Langileek helburuak eta neurriak hautatzean eta lehentasuna ematean duten parte-hartzea baloratuko da (5 puntu gehienez).

E.3.- Plana sindikatuen ordezkaritzaekin eta plantillarekin alderatzeko formulak eta uneak egotea (5 puntu gehienez).

Aukerak:

- Talde eragilean bakarrik kontrastatzea: puntu 1.
- Talde eragilearekin + plantillako ordezkaritza sindikalekin kontrastatzea: 2 puntu.
- Talde eragilearekin + ordezkaritza sindikalekin + plantillarekin kontrastatzea (ekarpen zuzenak egiteko aukerarekin): 5 puntu.

E.4. Planaren iraupena. Egutegi-proposamenaren justifikazioa. (5 puntu gehienez).

F) PRESTAKUNTZA-PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO NEURRIAK (15 puntu gehienez)

F.1.- Planeko neurriak ezarriko direla eta haien jarraipena egingo dela bermatuko duen kontrol-organo bat egon dadin planteatzea. Entitatearen kudeaketa-organoetan sartzeari balioetsiko da (5 puntu gehienez).

F.2.- Planaren jarraipenerako formulak. Neurrien aplikazioaren jarraipena egiteko eta planeko helburuak ebaluatzeke eta berraztertzeke entitateari emango zaizkion tresnak. Sar litezkeen adierazle moten proposamena (5 puntu gehienez).

F.3.- Entitateko eragileei planaren berri emateko metodologia. Planaren berri barnean (plantilla) zein kanpoan (bezeroak, web-orria...) zabaltzea baloratuko da (5 puntu gehienez).